



# → BAZEN BEHIN, JOKOA

Jokoa kultura guztien parte da. Gizakiak interakzio sozialerako duen modurik zaharrenetako zaharretentarko bat da. Historia osoan zehar "zori"aren, arabez "zorte" esan nahi duena, esku utzi dira gauzak, txanponak edo objektu baliotsuren bat lortzen saiatzeko.




**3000 K.a.**  
Txinan dirua lortzeko eta dibertitzeko apustu egiten dute jada. Geroago, Europa eta Ekialde Ertainean ere hala egingo dute.




**2000 K.a.**  
Egiptoarrek sei aurpegiko dadoak zizelkatzen dituzte entretenitzeko modu gisa.




**776 K.a.**  
Grezian olimpiadak sortzen dira. Jokoa zirrarragarriagoak izan daitezten, txanponak jokatzen dira irabazleak asmatzeko.




**529 K.o.**  
Erroman Justinianoren Kodeak apustu egin daitezkeen jokoak mugatzen ditu. Era horretan, apustulariak euren zorrak kitazera behartzen ditu.




**1638**  
Venezian lehen kasinoa irekitzen da. Ridotto apustuak modu kontrolatua egiteko joko-ingurunea sortzeko ireki zen.



**1440**  
Inprenta asmatzeak historia aldatzeaz gain, karta-jokoetan iraultza ekarriko du eta oso azkar areagotuko dira.




**XIV. m.**  
Kartak Txinan jai eta merkataritza-trukeen bidez iritsi ziren Europara. Agintari zibil eta erlijiosoek berehala debekatuko dituzte sarri apustuak berekin ekartzeagatik.




**Erdi Aroa**  
Aberatsen eta behartsuen arteko arrakala ausazko jokoetara ere hedatzen da. Dadoak klase baxuentzat ohikoak diren bitartean, joko konplexuagoak eta torneotako apustuak nobleziarentzat dira soilik.




**XVIII. m.**  
Erresuma Batuan apustuen modalitatea finkatzen da, eta zaldi- eta galgo-lasterketak egingo dira.




**1763**  
Karlo III.ak hala aginduta, Espainiak loteriaren lehen zoketa egin zen Madrilan, Ogasuneko Ministerioa finantzatzeko.




**1796**  
Erruleta XVIII. mendean sortzen da Frantzia, 1720an asmatutako joko-gurpil baten eta Biribi italiar jokoaren arteko hibrido gisa.




**1812**  
Cádizen Gabonetako lehen Zoketa egiten da abenduaren 18an, Loteria Modernoa edo Sari Oparoen Loteria izenarekin, frantsesen kontrako kanpaina militararentzat dirua biltze aldera.



**1939**  
ONCEren lehen zoketa egiten da, eta "itsuen aldeko" kupoia deitu zitzaion. Kupoiek hiru zifra zituzten soilik eta zoketak probintzialak ziren.




**1929**  
Bingoa Estatu Batuetara iristen da eta "Beano" izenez ezagutuko da. 1930ean Edwind S. Lowe jostailugileak jokoari izena aldatu zion norbaitek nahi gabe "Bingo" oihukatu baitzuen "Beano" ordez.




**1895**  
Charlees August Feyk Liberty Bell ekoiziko du San Frantziskon. Lehenengo txanpon-makina da eta "beso bakarreko bidelapurra" esaten zitzaion. Izan ere, engranajeen sistema mekaniko batekin funtzionatzen zuen, zeintzuek hiru danbor mugitzen zituzten eskuinean zuen palanka batetik tiratzen.




**1829**  
Bost kontinenteetan eboluzionatu eta gero, Frantziako "poque" jokoa Estatu Batuetara iritsiko da XIX. mendean. Bertan, Joseph Crowllek jokoaren arauak idatziko ditu bere egunerokoan, gaur egun ezagutzen diren moduan eta Mississippin migranteei jokatzen ikusi zien moduan.




**1946**  
Kiniela sortzen da, zazpi partidako txartel batekin eta 77.060 pezeta (463 euro) bilduta. Irabazle bakar batek 9.603 pezeta (57.71 euro) eraman zitzaizkeen.



**1977**  
Espainian apustu-jokoa legeztatzen da eta enpresa pribatuek kudeatutako kasinoak eta joko-aretoak areagotzen hasten dira. Loteriek eta kinielak Estatuaren esku jarraitzen dute.



**1994**  
Man uhartean kokatutako Microgaming izeneko software-enpresa batek erabat funtzionala eta ziurra den apustu-softwarea garatzen du eta Antigua eta Barbudako legezko lehen lineako kasinoa abian jartzen da.




**1997**  
Planet Poker sortzen da, lehen lineako poker-aretoa, jokalariei, gehienak estatubatuarak, benetako diruarekin apustu egitea baimentzen diena.



**2023**  
Lineako apustuek gora egiten jarraitzen dute. Teknologia aurrera egiten du jokalariei esperientzia erakargarriagoak eta errazagoak eskaintzeko, esaterako, errealitate birtuala, bitcoinekin ordaintzea eta streaming bidezko apustuak, apustu egiten jarrai dezaten.



**2022**  
Espainian hilerio milioi bat kontu baino gehiago aktibatzen dira linean jokatzeko guneetan. Horrek esan nahi du Espainian 48 lagunetik 1 telefono mugikorrera edo ordenagailura konektatzen dela erregulartasunez bere aisialdi-denboraren zati bat apustu egitean inbertitzeko. Espainian GGRa (Gross Gaming Revenue) edo jokoarekin bildutako zenbateko gordina 962 milioi euro baino handiagoa da, aurreko urtean baino % 18 gehiago.



**2011**  
Espainian Jokoaren Legeak lineako jokoa legeztatzen du eta herrialdean eragiketarako egiteko lehen joko-lizentzia eskusiboak ematen dira. Une horretatik aurrera, kasino eta lineako apustu-etxe guzti-guztiek lizentzia edo baimen bat beharko dute.



**2005**  
ONCEren "arraskatu" motakoak sortzen dira, estatu-mailako Berehalako Loteriaren lehen produktua. 0,50 euro balio zituen eta sari nagusia 3.000 eurokoa zen.

*Mesopotamiako sei aurpegiko lehen dadoak 3000 K. a. inguruak dira. Alabaina, astragaloan, oineko hezurreen, oinarritu ziren, eta haren erabilera milaka urte lehenagokoa da.*



GEHIAGO JAKIN NAHI AL DUZU?